



Esp. kodea: 2017SAPL0001

Gaia: PLENOA 2017/02/07  
Hasiera eguna: 2017/01/31

## AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2017ko otsailaren 7a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

### 1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2016ko abenduaren 20a egindako bileraren akta onartu du.

### 2.- BIDE GARBIKETA ZERBITZUA ADJUDIKATZEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA AGIRIAK ONARTZEKO PROPOSAMENA

Aldeko 11 bozka eta kontrako 10 botorekin onartua geratu da Bide Garbiketa zerbitzua adjudikatzeiko kontratua arautuko duten baldintza agiriak. Zerbitzu honen baldintza nagusiak honakoak dira:

- ✓ Xedea: Kaleen eta antzekoen garbiketaren zerbitzuak ematea
- ✓ Kontratu mota: Zerbitzuak.
- ✓ Prozedura: Irekia.
- ✓ Aurrekontua: 1.409.090,00 €/urtean, BEZ gabe (1.550.000 €/urtean, BEZ barne)
- ✓ Egiteko epea: 4 urte, urte bateko beste 2 epez luzatu daitekeena,
- ✓ Prezioak berraztertzea: bai.

### 3.- “A.E. 82.- KATAIDE ESPARRUAN DAGOEN HORNIKUNTZA PARTZELAREN ERABILERA NAGUSIA EGOKITZEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN BEREZIA” BEHIN BETIKO ONARTZEKO PROPOSAMENA

Aho batez onartu da behin betiko ontzat ematea *A.E. 82.- Kataide esparruan dagoen hornikuntza partzelaren erabilera nagusia egokitzeiko Hiri Antolamenduaren Plan Berezia*. Plan Berezi horren helburua da A.E. 82.- KATAIDE antolamendu esparruan dagoen hornikuntza partzelaren erabilera nagusia egokitzea. Hau da, gaur egun, soilik, gizarte eta administrazioko hornikuntza erabilera izan daitekeena, izendatu gabeko hornikuntza erabilera orokorrera zabaltzea planteatzen da, baita horrekin bateragarriak izan daitezkeen beste erabilera batzuetara.

### 4.- 2016-2019 EPEALDIRAKO ARRASATEKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA HIRU DIRULAGUNTZA LERRO BERRI GEHITZEKO PROPOSAMENA.

Aldeko 20 boto (EAJ-PNV, EH BILDU, PSE-EE, BALEIKE) eta abstentzio batekin (IRABAZI) onartua geratu da Arrasateko Udalaren Diru laguntzen Plan Estrategikoaren 1. Gehigarriari dagokion dokumentua, eranskinean aurkezten dena eta honako lerroak batzen dituen:



Esp. kodea: 2017SAPL0001

Gaia: PLENOA 2017/02/07  
Hasiera eguna: 2017/01/31

1. B-11) Laguntza programa, lankidetzeta proiektu baterako, garatzen ari dena Mozambiken, Mundukide eta Harremanen eskutik.
2. G-4) Laguntza programa, 18-35 urte bitarteko gazteentzat etxebizitza alokairua ordaintzeko.
3. I-7) Laguntza programa, ikasten diharduten pertsona langabeentzat.

#### **5.- 2017 EKITALDIAN PRODUKTIBITATE OSAGAIA BANATZEKO IRIZPIDEAK ONARTZEA.**

Aho batez onartu da Udal enplegatu publikoei 2017 urtean ordainduko zaien Produktibitate Osagaiaren banaketa- eta izendapen-irizpideak onartzea, espedienteen jasota dauden zehaztasunaren arabera.

#### **6.- GESALIBARREKO AUZO ALKATEAREN IZENDAPENAREN BERRESPENA.**

Alkateak berretsitako Gesalibar Auzoko Alkate berriaren izendapenaren berri eman da. Alkate berria Joseba Azpeitia jauna da.

#### **7.- ETXEGABETZEAK EKIDITEKO GIZARTE LAGUNTZEN AURREAN, FINANTZA ERAKUNDEEK DUTEN JARRERA SALATZEKO EH-BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA**

Aho batez onartu da EH BILDUK aurkeztutako mozioa

#### **8.- SAHARAKO ERREFERENDUMAREN INGURUAN IRABAZI-ARRASATEK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Aho batez onartu da IRABAZI udal taldeak aurkeztutako mozioa.

#### **9.-POBREZIA ENERGETIKOAREN AURKA IRABAZI-ARRASATEK ETA BALEIKEK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Aho batez onartu da IRABAZI ETA BALEIKE udal taldeek aurkeztutako mozioa.

#### **10.- GARDENTASUNA UDAL KUDEAKETAREN INGURUKO BALEIKEK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Mozio hau ez da onartua izan aldeko 10 boto (EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeena) eta kontrako 11 botorekin (EAJ-PNV eta PSE-EE)

#### **11.- HIRITARREN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO BALEIKEK AURKEZTUTAKO**



---

**Esp. kodea:** 2017SAPL0001

**Gaia:** PLENOA 2017/02/07  
**Hasiera eguna:** 2017/01/31

---

**MOZIOA.**

Mozio hau ez da onartua izan aldeko 10 boto (EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeena) eta kontrako 11 botorekin (EAJ-PNV eta PSE-EE)

Arrasaten, 2017ko otsailaren 15a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta